



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAREN 2022KO MAITZAREN 13KO AGINDUA; HONEN BIDEZ BERMATZEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ARRETA ESPEZIALIZATUKO ETA OSASUN MENTALEKO ZENTROAK/ARLOAK BAITA OSASUN MENTALEKO SAREA, OSPITALEAK, KONTSULTA ESPEZIALIZATUEN ANBULATORIOAK, TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA, LARRIALDIK ETA GIZARTE-ZERBITZUAK, GIZARTEARI EMATEN DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA, APIRILAREN 15RAKO ETA 16RAKO DEITUTAKO GREBAN.

SATSE, ELA, LAB, CCOO , UGT eta ESK sindikatuen ordezkariak greba-deialdia egin dute Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren arreta espezializatuko eta osasun mentaleko zentro eta arloetan, baita osasun mentaleko sarean, ospitaletan, kontsulta espezializatuen anbulatorioetan, transfusio eta giza ehunen euskal zentroan, larrialdietan eta gizarte-zerbitzuetan Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, zerbitzuak ematen dituzten langileentzat. Greba 2022ko maiatzaren 15ko 22:00etatik 2022ko maiatzaren 16ko 22:00etara deitu da.

Greba-deialdiaren helburuak honako hauek dira: “*OSAKIDETZako langileen kolektiboak jasaten duen lan-prekaritatea salatzea*”; eta “*kolektiboaren lan-baldintzak defendatzea eta egungo baldintzak errotik aldatzera behartzera, Mahai Sektorialeko negoziazio egokiaren bidez. Hobekuntza horren barruan sartzen dira: osasun publikoko inbertsioa handitzea; giza baliabide nahikoak eta egokiak; aldi baterako plantillak finkatzea; aplikatutako murrizketak lehenatzea; ordezkariak lehenengo egunetik; arrisku psikosozialen ebaluazioa; malgutasun- eta kontzilio-neurriak; erretiro aurreratua eta hainbat zentru edota zerbitzutan irekitako gatazken konponbidea erraztuko duten neurriak*”.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Horrela, beraz, Konstituzioak greba-eskubideari ematen dion babes zerrondatzen eta babesten dituen eskubiderik garrantzitsuenen (15. eta 43. artikuluan aipatzen dituen bizitzarako, osotasun fisikorako eta osasunerako eskubideei, adibidez) ematen dienaren berdina da. Eskubide horiek guztiek, greba-eskubidearekin batera, Konstituzioaren babesik handiena jasotzen dute.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzekak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo “egokitasun-judizioa”; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo “premia-judizioa”; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, “proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta”. Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, besteak beste, honako epai hauen bitartez: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahiaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Denbora- eta lurralde-eremuari dagokionez, greba-egun oso baterako deialdia egiten da EAE osorako: 2022ko maiatzaren 15eko 22: 00etan hasi eta 2022ko maiatzaren 16ko 22: 00etan amaituko da.

Jarduera-eremuari dagokionez, greba-deialdiak OSAKIDETZA - Euskal Osasun Zerbitzuko Arreta Espezializatuko eta Osasun Mentaleko Zentro/Arloetan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiak hartzen ditu barne (lan-kontratudunak, estatutupekoak eta funtzionarioak), baita Osasun Mentaleko sare osoa, ospitaleak, kontsulta espezializatu etako ambulatorioak, TGEEZak, larrialdiak eta zerbitzu zentralak ere, lehen mailako arreta izan ezik.

Osakidetzak berak emandako datuen arabera, 30.000 langile daude grebara deituta.

Greba-deialdiaren eraginpean egon daitezkeen erabiltzaileen kopuruari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoak jasan dezake greba-deialdiaren eragina.

Osasuna babestea oinarrizko eskubideetako bat da zuzenbide-estatu guztietan. Egun, herritarrek gutxieneko prestazio sanitarioak eskatzeko duten eskubidetzat ulertzen da eskubide hori, aintzat hartuta giza duintasuna eta estatu bakoitzaren gizartearen eta ekonomiaren garapen-maila. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1. artikuluan dioenez, «pertsona orok du osasuna eta ongizatea edukitzeko eskubidea, eta batez ere, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak edukitzekoa»; ildo berekoak dira Europako Kontseiluaren Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE, 1966).

Hortaz, greba-eskubidearen eta Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako beste zenbait eskubideren arteko gatazkan (bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta osasuna babestekoa), ezinbesteko baldintza da azken horiek bermatu beharra.

Osasun-zerbitzuek pertsonen osasuna eta bizitza zaindu behar dute. Beraz, eta greba-deialdiari dagokionez, argudio gutxi edo bat ere ez da behar larrialdi-zerbitzuak erabat mantentzea oinarritzeko; izan ere, zerbitzu horiek ahalik eta azkarren jarduten ez badute, giza bizitzak ere gal litezke.

Era berean, «Ospitaleratutako pazientearen behar bezalako arreta» dela-eta, ospitale bakoitzean ezinbesteko pertsona-kopuru bat egongo da, gaixoek behar bezala emandako sendagaiak, behar bezalako higiena eta beharrezko elikadura jasoko dituztela bermatzeko, hau da, osotasuna, fisikoa zein morala, hondatu ez dadin behar den laguntza.

Arrazoi horiengatik, eta ospitaleen eremuan, pazienteei behar bezalako arreta bermatzeko, beharrezkoa da jaiegunetako ohiko langileen gutxieneko zerbitzu sendoak ezartzea.

Etengabeko arreta-guneei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 2012ko urriaren 3ko Epaiak ezetsi zuen errekurtsogileak etengabeko arreta-guneetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuen inguruan zuen asmoa; hau da, zerbitzu horiek gehiegizkotzat jotzea (% 100eko zerbitzuak ezarri ziren), arrazoi hau aipatuta: "larrialdi-zerbitzuen izaerak berak eta etengabeko arreta-guneeen helburuak justifikatu egiten dute, aztergai dugun eremuan (osasunaren eremuan) eta osotasun fisikoa eta bizitzeko eskubidea ahaztu gabe, errekurtsua jaso duen aginduan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezartzea"; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei.

Osasun-sektore horretan bertan, kontuan hartu behar da 2011ko uztailean funtsezko erreforma bat egin zela erabiltzaileen arretan, Call Center izeneko sistema sartzean. Sistema horrek, osasun-arreta bere horretan ematen ez badu ere, zerbitzu hori benetan ematea ahalbidetzen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen harremana baita; zerbitzu hori bereziki nabarmena da osasun-aholkuari dagokionez. Izan ere, telefono-zerbitzua da, eta lehen mailako arretako erizaintzako langileek ematen dute. Bertan, erabiltzaileen premiak balioesten dituzte eta, haien egoeraren arabera, dagokion zerbitzura bideratu. Zehazki, larrialdi-zerbitzura (bizilekura ambulanzia bat bidalita) edo etengabeko arreta-gunera (bizilekurako abisua zuzenean kudeatuta) bidera daitezke. Garbi dago, beraz, Call Center

izenekoa osasun-larrialdietara bidera daitezkeen deien iragazkia dela, osasun-aholkuan gerta litekeen kolapsoa saihesten duela, eta osasun-lehentasuna duten deiak eta dei arruntak bereizten dituela. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk egiten ditu, hala nola aurrez ordua eskatzeko deiak hartzea, IVR telefono-sistema bidez operadore birtual gisa jardutea, zenbaki generikoetatik aurrez ordua eskatzeko iristen diren deiak hartzea, zerbitzuei buruzko informazio orokorra ematea, etab. Azkenik, Autonomia Erkidegoko zentro guztietako O-Sarean barruko zerbitzu eta aplikazioen funtzionamenduari lotutako barne-gorabehera teknikoak kudeatzen ditu. Sistemaren funtzionamendu teknikoaren berme hori dela eta —eta bereziki Osasun Aholkua zerbitzuak bultzatuta— jo du gobernu-agintaritza honek zerbitzu hori bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzutzat, bizitzeko eta osasunerako eskubideari lotuta dagoen heinean.

2014. urtean, Call Center Korporatibo zentralizatua bi sistemarekin ordeztu zen:

- a) Osasun-erakunde batzuetan, telefono-jauziko dei-sistema bat ezarri da anbulatorioen artean, eta ez da beharrezkoa izango gutxieneko zerbitzu espezifikorik finkatzea sistema horretan.
- b) Eta Arabako ESIan, Donostialdeako ESIan, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIan, Bilbo-Basurtuko ESIan, Uribeko ESIan, Debabarrenako ESIan, Bidasoako ESIan, Tolosaldeako ESIan Call Center, eta, oraintsuago, Barakaldo-Sestao ESIan, eta Barrualde-Galdakao ESIan, sistema bat ezarri da. Sistema horrek lehengo Call Center Korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu baina erakunde bakoitzera mugatuta dago.

Duela gutxi, OSAKIDETZAren komunikazio bidez, jakinarazi da Call Center sistema hori Barakaldo-Sestao ESIan eta Barrualde-Galdakao ESIan ere ezarrita dagoela. Era berean, bigarren lehendakariorde eta lan eta Enpleguko sailburuaren 2022ko apirilaren 7ko Aginduak, 2022ko apirilaren 8ko greba-deialdiari buruzkoak, zeinak OSAKIDETZA – Euskal Osasun Zerbitzuko Lehen Mailako Atentzioko Zentro/Arloetan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiei (lan-kontratudunei, estatutupekoiei eta funtzionarioei) eragiten baitzien, Euskal Autonomia Erkidego barruko Etengabeko Arretako Guneak barne. Horregatik guztiagatik, oraingo deialdian zerbitzu-erakunde horiek ere sartuko dira.

Bigarren call center mota honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko beharra honako hauek arrazoitzen dute; batetik, lehengo call center korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu, erakunde sanitario bakoitzera mugatuta bada ere; eta, bestetik, telefono bidezko arreta oso garrantzitsua da; izan ere, arreta hori funtsezkoa da osasun-antolamenduan, herritarrek osasun-sistemarekin harremanetan jartzeko gehien erabiltzen dituzten bideetako bat baita. Sistema horren bidez, gainera, telefonoz ordua aurrez eskatzeko eskariaren banaketa orekatuagoa lortzen da eguneko orduetan. Horri esker, zerbitzuek ez dute gainezka egiten lehen orduetan, eta telefonoz bideratzen ez diren pertsonak ez dute nahitaz osasun-zentrora joan behar.

Ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu zehatzei dagokienez, kontuan hartu behar da aurreko Call Center Korporatiboan urteko egun guztietan egiten zela lan, nahiz eta astelehenetik ostiralera bitartean jarduteko plantilla bat eta larunbaterako beste bat egon. Egungo call center zerbitzua antolatuta dagoen moduan, berriz, ez da zerbitzurik ematen larunbatetan. Beraz, gutxieneko zerbitzuak larunbatetako zerbitzuetara mugatzea zerbitzurik ez ezartzea izango litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2013ko maiatzaren 29ko Autoan erabaki eta 2013ko irailaren 25eko Epaiak berretsi zuenez. Hori guztia dela-eta, Osakidetzaren Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, egungo plantillaren % 50 behar da zerbitzu hori betetzeko, eta, hortaz, lan horiek egin ohi dituzten langileen ehuneko hori ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa.

Inguruabar horietan guztietan oinarrituta, deialdi honen aurre-aurretik egindako greba-deialdietan, aipatutako zerbitzuari eragiten zioten heinean, ondorengo aginduak eman ziren: 2014ko azaroaren 4ko Agindua, 2015eko apirilaren 21eko Agindua, 2016ko ekainaren 10eko Agindua, 2018ko otsailaren 27ko Agindua, 2019ko otsailaren 28ko Agindua, 2020ko urtarrilaren 20ko Agindua, 2020ko urriaren 26ko Agindua, 2021eko urtarrilaren 26ko Agindua eta 2022ko otsailaren 24ko Agindua, 2022ko apirilaren 6ko Agindua, horietan guztietan, ehuneko hori ezarri zen gutxieneko zerbitzutzat.

COVID-19ak eragindako osasun-egoera dela eta, oso garrantzitsua da berehalako arreta eta informazioa ematea, 2022ko apirilaren 22eko Zaintza Epidemiologikoaren Protokoloan ezarritakoaren arabera proba diagnostiko bat egiteko adierazpen-irizpideak betetzen dituzten pertsoneri, bai zaugarritasunagatik, bai pertsona zaugarriekin duten harremanagatik. Lan horiek, kasuak eta kontaktuak zaintzeko programako sareko taldeek eta infekzio aktiboaren diagnostiko-tesen laginak ateratzeko zerbitzu/unitateek egiten dituzte; era berean, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak eta Prebentzio Medikuntzako Zerbitzuak lan horiek egiten ari dira. Horregatik, beharrezkoa da aipatutako zerbitzu guztietan gutxieneko zerbitzuak ezartzea, eta zerbitzu horietan greba-egun bakoitzean lan egin behar duten pertsonen % 100ek zerbitzu horiei eutsi beharko die.

Aurreko guztia dela-eta, nabaria da beharrezkoa dela gutxieneko zerbitzu batzuk ezartzea; izan ere, funtsezkoak eta, beraz, babestu beharrekoak dira OSAKIDETZAK ematen dituen zerbitzuak, aurreko paragrafoetan adierazitako lehentasunezko arloetan. Izan ere, zerbitzu horiek finkatuko ez balira, grebarekin lortu nahi den helburua baino askoz garrantzitsuagoak izan litezkeen kalteak eragin litezke, arriskuan jar bailitezke arlo horietan zaintzen diren pertsonen osasuna eta, zenbaitetan, baita bizia ere, pertsona horien kalteberatasuna dela-eta. Inguruabar horrek bultzatu du gobernu-agintaritza Agindu honetan zehaztuta dauden gutxieneko zerbitzuak ezartzera.

Martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuak, Lan Harremani buruzkoak, honako hau xedatzen du 10.2. artikuluan: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrezko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal

izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartzezko neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [KAB 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2. artikuluekin bat etorriz (bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako oinarritzko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko»), gobernuko agintaritzari aukera ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko, greba-kasuan funtsezko zerbitzuei euste aldera, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei horiek bete ditzaten eskatzea.

Hori dela-eta, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta, horrenbestez, entzuteko izapidea idatziz egin zaie ukitutako alderdiei (hau da, grebarako deialdia egin duten sindikatuen, OSAKIDETZAko zuzendaritzaren ordezkari, eta ukitutako eremuetako enpresei nahiz enpresa-elkarteei), gobernu-erabakiaren eraginpean daudekeen zerbitzu eta langileen inguruko proposamenak azal ditzaten.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatuak egikaritzea dagokio, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau:

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuko arreta espezializatuko eta osasun mentaleko zentro eta arloetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, maiatzaren 15ko 22:00etatik 2022ko maiatzaren 16ko 22:00ak arte, zerbitzuak ematen dituzten langileek deitutako greba-eskubidea baliatzeko, ondoren zehazten diren funtsezko prestazioak eta gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira:

1.1.- Gutxieneko zerbitzuak:

- i. Ospitaleetan, arau orokor gisa, larunbateko ohiko langileek egingo dituzte gutxieneko zerbitzuak – Alta medikoak eman ahal izango dira – Larrialdietako zerbitzuetan, sukaldean, janari-banaketan eta ospitaleratutako gaixoei behar duten arreta ematean.

Ospitale horietan, dialisi-prozesu eta tratamendu onkologiko lehenetsi eta atzeraezin guztiak mantendu eta bermatuko dira. Era berean, koronabirusaren proba diagnostikoak egiteko ezarritako baliabideak mantenduko dira.

- ii. Larrialdi-zerbitzuaen % 100.
- iii. Arabako ESI, Donostialdeako ESI, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI, Bilbo-Basurtuko ESI, Uribeko ESI, Tolosaldeako ESI, Debabarrenako ESI Bidasoako ESI, Barakaldo-Sestao ESI, eta Barrualde-Galdakaoko ESI Call Center zerbitzuetan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50.
- iv. Kasuak eta kontaktuak zaintzeko programako sareko ekipoetan, 2022ko apirilaren 1eko Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan ezarritakoaren arabera proba diagnostiko bat egiteko adierazpen-irizpideak betetzen dituzten pertsonen berehala arreta eta informazioa emateko, kutsatze posibleen aurrean hartu behar dituzten neurriak buruz, kontaktuen miaketa- eta jarraipen-lanak egiteko eta birusaren/erauzketa aktiboaren % 100eko testak mugatzeko beharrezko neurriak hartzeko, bai eta birusaren eta erauzketa aktiboaren % 100eko testak ere.

1.2.- Gutxieneko zerbitzu horiek nahitaez bete beharko dira, deialdian ezarritakoaren arabera, kontuan hartuta grebaren hasiera 2022ko maiatzaren 15ean izango dela, 22: 00etan, eta amaiera 2022ko maiatzaren 16an, 22: 00etan.

BIGARRENA.- Greba-eskubidea erabiltzen ez duten pertsonen emango dituzte arestian aipatutako zerbitzuak, salbu eta langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean.

Langileen ordezkariak entzun eta gero, OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritzari dagokio langileei eginkizunak esleitzea. Nolanahi ere, Agindu honetan eta indarrean dauden gainerako legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Agindu honen aurreko ataletan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



LAUGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

BOSGARRENA.- Agindu hau jakinarazten den egunean jarriko da indarrean.

SEIGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**